



memoria 2025

hitzaurrea

Hernani Burujabe Trantsizio Ekosoziala helburu duen herri proiektua da, eta horretarako, herriko ehun ekonomikoa, soziala eta administratiboa barnebiltzen ditu elkarlanean oinarritzen den planifikaziorako prozesu demokratikoaren baitan.

Egungo eredu ekonomiko xahutzaile eta jasangaitzaren aurrean, alternatiba bizigarri, iraunkor eta parekide bat martxan jarri nahi du Hernani Burujabek, justizia soziala, ekologikoa eta planifikazio publiko-komunitarioa erabiliz.

Hernanin martxan den egitasmoak burujabetza materialetan sakondu nahi du, bizitzarako estrategikoak diren sektore sozioekonomikoak merkatu logikatik askatuz eta herritarren beharren zerbitzura jarritz

2025 Hernani Burujaben lantzen diren hainbat sektoreetako proiektuen hedapen eta garapena

gertatu den urtea izan dela esan dezakegu: elikadura, energia, moneta, zaintza-n etab...ekoizpen gaitasuna biderkatuko duten azpiegiturak eskuratu eta herritartu dira-eta. Horrenbestez, aurreko urteotan erein diren hazi berriak ernaltzen hasi direla esan daiteke, 2026an zehar loratzen ikusiko ditugun haziak, hain zuzen ere.

Gobernu ekosistema eta planifikazio publiko-komunitarioari dagokionez, egonkortze fase batean gaude: batetik, Burujabetzen Kontseiluaren jarduna zeharo ezarri da. Gainera, aurtan, parte hartzeko eremuak zabaldu dira eta elkarte eta eragile sozialak planifikazio prozesura gehitu dira.

Jarraian sektorez sektore 2025an zehar martxan jarritako proiektuen eta horiek jasotako emaitzen inguruko informazioa ikusi ahalko duzue.



elikadura

2025ean, Hernani Burujaberen elikadura ildoak aurrerapauso esanguratsuak eman ditu tokiko ekoizpena, eraldaketa eta kontsumoa uztartzen dituen sistema burujabeago baterantz. Lehen sektoreko eragileen arteko koordinazioa sendotzen jarraitu da, azpiegitura eta proiektu estrategikoak egonkortuz eta belaunaldi-erreleboa, laneratzea eta tokiko merkaturatzea sustatuz. Aldi berean, urteak erakutsi du balio kate osoaren arteko oreka eta plangintza partekatua funtsezkoak direla proiektuaren iraunkortasuna bermatzeko, eta norabide horretan sakontzeko borondatea berretsi da.

ekoizleak eta nekazal ustiapenak

Hernani Burujaberen baitan, lehen sektorea sendotzea eta tokiko ekoizpena indartzea lehentasunezko ildoak izaten jarraitzen du. HENASEren bidez, ekoizleen arteko koordinazioa eta elkar-lana mantendu dira, eta 2026 hasieran kide berri bat batu da (Iradi, sagar ekoizlea), tokiko ekoizpen-sarea zabaltzen jarraituz.

Karabelekorekin lotutako prozesuak ere jarraipena izan du.

Bestetik, Karabeleko – aurretik jarduera bertan behera gelditua zuen— udalaren esku geratu da 2025ean. Erosketa horrek bi helburu estrategiko uztartzen ditu: alde batetik, nekazaritza jarduera berri bat martxan jartzea eta lehen sektoreko belaunaldi-erreleboa sustatzea; eta bestetik, elikadura burujabetzaren inguruko espazio ireki, hezitzaile eta herritarra sortzea komunitatearen parte-hartzea eta sentsibilizazioa indartzeko.

nekazaritza eskola

Nekazal Eskolak berriz ere funtzio estrategikoa bete du sektorearen berritzean eta laneratzearen sustapenean. 2025ean 31 pertsonak hasi dute prozesua eta 21ek amaitu dute. Horietatik 2k laneratzea lortu dute eta beste 2k errotze-prozesua (arraigoa) eskuratu dute. Eskolak prestakuntza

teknikoa, lanerako gaitasunak eta tokiko ekoizpen-sarearekiko lotura uztartzen jarraitu du.

herrilur

Herrilur kontsumo elkarteak bere jarduera egonkortzen eta zabaltzen jarraitu du.

Fakturazioak gora egin du eta erosle kopurua handitu da nahiz eta bazkide kopurua 141ean mantendu den. Parte-hartze eta gobernantza egituraren erroak identifikatu dira, talde eragilean eta batzarretan inplikazioa handitzeko beharra nabarmenduz. Horrela tailer eta jardueren bidez komunitatea gerturatzea lortu da.


Tokiko produktuen presentziari dagokionez, 2025ean salmenten %14 Hernaniko ekoizleen produktua izan da (16 ekoizleren bidez), eta 32.836 euroko fakturazioa bideratu da bertako ekoizleen alde. Horrek tokiko ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko lotura sendotzeko bidean egindako aurrerapena erakusten du.

transformazio zentroa – bertatik elikatuz


Bertatik Elikatuz transformazio zentroak bere laneratze inpaktua mantendu du eta zenbait jarduera-ildo ondo funtzionatzen ari dira, bereziki animalien despiezea eta tupper zerbitzua. Hala ere, urtean zehar hornidura-bolumenari lotutako desorekak agertu dira, eta horrek ekoizleen eta eraldaketa-zentroaren arteko koordinazioa indartzeko beharra azaleratu du.

Egoera horri erantzunez, HENASE eta Bertatik-en arteko akordioa berritu da, eta 2026rako bolumen eta prezio adostuak zehaztu dira. Elikadura Mahaiak hitzarmen horren jarraipena egingo du, balio kate osoaren kohesioa eta plangintza partekatua bermatzeko. Oro har, transformazio zentroa elikadura burujabetzaren kateko pieza estrategiko gisa sendotzen ari da, etengabeko hobekuntza eta egokitzaen prozesuan.


elikadura sektoreko aurrekontua




nekazal ustiaketen bilakaera




transformazioa



salmenta zuzena



intserzioa eta laneratzea



energia

Energia trantsizioa egiteko bete beharreko 3 legeak ezagunak dira: бага, energia kontsumoa murriztu behar dugu; biga, erabilerak eraginkorragoa izan behar du; eta higa, arian-arian erabiltzen dugun energiaren zenbatekoa geroz eta gehiago izan behar du berriztagarria. Bide horri lotzeko energia sektorean honako helburu hauek ezarri genituen 2024ko Planifikazio Prozesuan: autokontsumo partekatua hedatu, energia bulegoa finkatu eta indartu, eta komunitate energetikoa, Enherkom sendotu. Jakina denez, Hernani Burujaberen baitan ari gara, eta beraz, aipatuak kolaborazio publiko-kooperatibo-herritar bidez gauzatzeko apustua egin dugu.

2025ean eginiko ahaleginak eta horrek eman duen uztaren argazkia ezagutuko duzue hurrengo atalean.

autokontsumo partekatua

Planifikazio prozesuan ezarritako helburua energia berriztagarriaren tokiko ekoizpena handitzea izan da, autokontsumo kolektiboa udal-politiketan eta komunitate energetikoaren jardunean modu egituratuan txertatuz. Horretarako, 2025rako ildo honi 200.000 euroko aurrekontua esleitu zitzaion. Ekarpen handiena Hernaniko Udalak egin du (100.000€), eta Enherkomek bestelako finantziazio bidez hornitu du ildoak, baliabideak lortuz, bai Gipuzkoako Foru Aldunditik (75.000€), bai bestelako bideetatik (25.000€).

Emaitzei dagokienez, 2025ean jauzi nabarmena eman da 2024arekin alderatuta. Instalaturako potentzia metatua 520,9 kW-ra iritsi da, aurreko urteko datuak nabarmen gaituz, eta berriztagarrietatik lortutako energia 58.550 kWh-koa izan da. Estimazioen arabera, horrek 20.902 kg CO₂-ren isuriak saihestea ahalbidetu du. Martxan jarritako instalazio berriek 2.403 m²-ko

azalera hartu dute, eta horietatik %79 teilatu publikoetan kokatu dira, udalaren inplikazio zuzena agerian utziz. Guztira, 276 erabiltzailek jasotzen dute energia autokontsumo partekatuen bidez, 2024an baino erabiltzaile gehiago izanik, eta 11 negoziok parte hartu dute sisteman. Inbertsio osoa esanguratsua da: 568.684,08 eurokoa izan da (BEZ barne).

Energia Bulegoa, pobrezia energetikoa eta eraginkortasuna

Energia Bulegoak funtsezko zeregina izan du 2025ean ere, herritarren energia-kontsumoa eta gastua murrizteko. Egoera zaurgarrian dauden pertsonen energia-eskubidea bermatzeko bidea ere bada, nahiz eta, pobrezia energetikoaren auziari beren-beregi heltzeko arazoak ditugun (datu-babes kontuak tarteko). Helburu horiei heltzeko, 2024ko Planifikazio Prozesuan, 47.000 euro inguruko aurrekontua esleitu zitzaion energia sektoreari.

Urtean zehar, Energia Bulegoan 350 pertsona baino gehiago artatu dira, 2024ko mailari eutsiz baina zerbitzua egonkortuz. Horrez gain, 50 inguruko bono-sozial energetikoen tramitazioa egin da, eta merkatarientzako aholkularitza energetikoa 9 establezimenduk hartu dute parte. Auzoetan eta herri mailan egindako formazio eta sentsibilizazio tailerrek (guztira bost) kontsumo arduratsuaren inguruko ezagutza zabaltzen lagundu dute.

2025ean Energia Bulegoak modu behin-behineko samarrean egin du lan, 2026ari begira, ordea, lizitazioa prestatu da, hemendik aurrera zerbitzua finkatu, sendotu eta hedatu dadin. Horrekin, 2025ean biltzea ezinezko izan diren zenbait estatistika osatzeko moduan izango gara.

enherkom komunitate energetikoa indartzea

2025ean Enherkom komunitate energetikoa indartzea izan da beste helburu estrategiko nagusietako bat, komunitatearen egitura sendotuz eta bere bideragarritasun ekonomikoa eta operatiboa bermatuz.

Jasotako baliabide publikoez gain, komunitatea indartu bada, berau osatzen duten herritar, eta bereziki, langileen dedikazioari esker izan da, zeinak beren denbora eman dioten komunitateari, eta gainera, kanpo-baliabideak lortu dituzten.


Urtearen amaieran Enherkomek 350 bazkide zituen, 2024ko 285 bazkideekin alderatuta hazkunde esanguratsua erakutsiz. Langile kopuruari eutsi zaio (2 langile), baina jardunaren bolumena handitu da, fakturazioa 216.538 eurora iritsita aurreko urteko datuak nabarmen gainditu dira. Horrez gain, barne-antolaketan eta gaitasunen sendotzean aurrerapausoak eman dira, urtean zehar bost barne formazio eta lan-saio eginez komunitatearen kohesioa eta profesionalizazioa indartzeko.

bestelako lanketak


Planifikazio Prozesuan zuzenean jasota egon ez arren, 2025ean hainbat lanketa osagarri garatu dira, horietako batzuk Enherkom komunitate energetikoarekin dute lotura zuzena. Enprekin egindako lanketaren baitan, “EnpreLagun” proiektuaren bidez industria-inguruneke enprekin autokontsumo kolektiboko instalazioak garatu dira, eta beste zazpi enpresetan bideragarritasun azterketak egin dira, 2024an hasitako harremanak sendotuz.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean CO₂ isurien konpentsaziorako proiektu pilotu bat diseinatu da (Anziola), eta hezkuntza-ingurunearekin lanketa ere indartu da, ikastetxeetan eta udal irakaskuntza-zentroetan energia-sentsibilizazioa eta instalazio fotovoltaikoen garapena uztartuz. Lanketa horiek guztiek erakusten dute 2025ean Enherkomek bere jarduna planifikazio formaletik harago zabaltu duela, sortzen diren erronka eta aukerei erantzuteko gaitasuna handituz.


energia sektoreko aurrekontua



instalazio fotoboltaikoak



enherkom komunitate energetikoa



zaintza

Zaintzen krisia bizi duen gizartea garela ulertuta, zaintzen demokratizaziorako estrategia martxan da tokiko zaintza sistema publiko komunitarioan ardaztuta. Haren helburua da zaintzarako eskubide unibertsala bermatzea eta zaintza lanen banaketa justua egitea zaintzaileen aitortza eta haien lanaren duintzea lortzeko.

etxeko zaintza zerbitzua

Hernaniko Etxeko Zaintza Zerbitzua (EZZ) udaleko zaintza-sare instituzionalaren oinarritzko zerbitzua da. 2025ean 170 pertsonari eman zien arreta, haien etxeetan bertan.

Zerbitzua batez ere adinekoei eta mendekotasun-mailaren bat duten pertsonen zuzenduta dago. Arreta pertsonala eta etxeko laguntza eskaintzen ditu, erabiltzaileek etxean bizitzen jarraitu ahal izateko. Erabiltzaile asko adin handikoak dira eta askotan bakarrik bizi dira. Zerbitzuak urte osoan zehar estaldura egonkorra mantendu du.

Kudeaketari dagokionez jarraipen eta koordinazio sistema antolatua du, udal gizarte-zerbitzuekin elkarlanean eta lantalde profesional egonkorrek eskaintzen du arreta. Gogobetetze maila handia da eta hobekuntza operatibo batzuk ere lortu dira, hala nola absentismoa murriztea.

Hernani Burujaberen zaintza ardatzean EZZk dimentsio instituzionala ordezkatzen du. Haren osagarri dira auzozaintza (komunitate-sareak aktibatzea) eta zaintzaileen zaintza (zaintzaileei babesa eta prestakuntza ematea). Guztiek batera zaintza-ekosistema integral baterantz aurrera egiten dute.

auzozaintza

Auzozaintza bakardade egoera ez desiratuan dauden adineko pertsonen sozializaziorako aukerak eta baliabideak eskaintzea helburu duen egitasmoa da. Zerbitzu hori laguntza eta akonpainamendu sistema publiko-komunitario ereduaren bitartez egiten da.

2025. urtean zehar 28 banakako akonpainamendu eman dira eta 11 asteroko talde topagune espazio mantendu dira. Bestalde, pertenezia sentimendua sustatzeko auzoetako eta herriko festetan parte hartzeko egokitzapenak egin dira (12 guztira).


Bestalde, zaintza sare komunitarioari dagokionez, Eltzeko taldearekin batera, beren auzoak bizigarriagoak eta zaintzaileagoak egiteko prest dauden hernaniarrak elkartu eta antolatzeko ekintzak egin dira. Zaintzaldian 300 pertsona baino gehiagok parte hartu dute.

zaintzaileen zaintza


Zaintza-lanek eragiten dituzten ondorio fisiko eta psikologikoak kontuan hartuta, 2025ean bi laguntza-ildo jarri dira martxan zaintzaileen ongizatea indartzeko. Lehenengoan Kulturarteko Plaza Feministan zaintzaileentzako talde bat antolatu da, espazio seguru eta errespetuzkoa eskainiz. Helburua izan da zaintzan aritzen diren emakumeek norberaren zaintzarako denbora eta tresnak izatea, nekea eta karga emozionala kudeatzeko baliabideak partekatzea eta elkar zaintzaren kultura indartzea. Parte-hartzea 10 lagunekoa izan da: 6 Maitelan kooperatibakoak, 2 egoiliar (interna), zahar-egoitza batean lan egiten duen pertsona bat eta senarra zaintzen duen emakume bat. Balorazioa oso positiboa izan da, eguneroko jardunari aurre egiteko baliabide praktikoa eskaini direlako.

Bigarren ildoan, Maitelaneke langileen egoera fisikoaren balorazio individualak egin dira, eta ondoren jarduera-saioak bideratu dira. Parte-hartzea 6 lagunekoa izan da, guztiak Maitelaneke kideak. Prozesuan identifikatu da zaintza-lanek urteetan zehar gorputz-karga handia eragiten dutela eta hainbat lesio metatu direla. Hala ere, saioak ez dira behar bezala egokitu parte-hartzaileen adin eta mugikortasun-ezaugarrietara; ondorioz, asistentzia ez da egonkorra izan eta proposatutako jarduerak ez dituzte beti identifikatutako beharrak bete.


zaintza sektoreko aurrekontua



zaintza zerbitzuen inpaktua



zaintza zerbitzuetako langile eta bolondresak



ekhi

Ekhi ez da ordainketa-tresna hutsa, izaera artikulatzailea duen truke-sistema baizik. Tokiko komertzioa indartzea funtsezkoa da noski, ikuspegi sozial, ekonomiko, zein ekologikotik; baina Ekhiaren potentziala harago doa: herritarrak, merkatariak, enpresak eta Udala sistema ekonomiko tokikotu eta burujabeago batean lotzeko tresna da, gure aberastasuna guk nahi dugun lurralde eredu sortzera bidera dezagun. Izan ere, garatu ahala, sistemak aukera ematen du irizpide sozial eta ekologikoak truke-arauetan txertatzeko, eta merkatu globalaren aurrean tokiko zirkuitu itxiak sortzeko; gure diruak zein eredu sozial elikatuko duen ebazteko, alegia.

monetaren errotzea

2025ean, monetaren errotzean aurrerapausoak eman dira, 2024an hasitako norabidea sendotuz. Ildo horretarako aurreikusitako baliabideak 74.200 eurokoak izan dira (55.000 € Udala eta 19.200 € Ekhiur). Merkatarien eta ostalarien parte-hartzea handitu egin da: Ekhi erabiltzen duten saltokiak 130era iritsi dira, eta bazkideetako saltokiak 47tik 63ra igo dira, bazkide-tasa %36,7tik %48,5era handituz. Saltokiek emandako hobariak ere igo dira (60.715 €), eta Udalaren hobari-ekarpenak maila altuan mantendu dira (152.544 €), tokiko kontsumoa pizteko politikak sendotuz. Herritarren artean ere erabilera egonkortu eta pixkanaka handitu da. Erabiltzaile kopurua 1.450era iritsi da, eta bazkideak 724 dira, bazkideetako herritarren ehunekoa %50era iritsiz. 2025ean erabiltzaileen garbiketa prozesu bat egin da (120 baja), sistemaren hedadura erreala izateko. Lehen aldiz, herritarrez osaturiko talde-motorra osatzen hasi gara. Sozializazio-ekintzek jarraipena izan dute, intentsitate apalagoan, 2024ko zabalkunde fasearen ondoren. Udalaren integrazioari dagokionez, 2025ean aurre-lanketa tekniko eta administratibo ugari egin dira, nahiz eta aplikazio berria martxan jarri arte ezin izango den integrazioa gauzatu.

tokiko garapena

Ekhiaren bidez tokiko garapen ekonomikoa indartzen jarraitu da. 2025ean, Udalak 152.000 euro bideratu ditu hobari-kanpainetara, eta merkatariak 60.000 euro inguruko ekarpena egin dute sistema eusteko. Ekhiaren masa monetarioa 181.432 eurotik 204.156 eurora igo da, eta salmenten bolumena 2,81 milioitik 2,96 milioira. Eragiketa kopurua ere handitu da (121.805 aldiz erabili da Ekhi 2025ean), eta Ekhi bidez dendariek fakturaturiko zenbatekoak gora egin du (2.958.052€); nahiz eta merkatarien artean egindako salerosketen zenbateko osoak behera egin (243.264€).

Gainera, ekimen burujabeen arteko lehen esperientzia pilotuak abiatu dira, hala nola energia Ekhi bidez ordaintzeko aukerak, tokian sortutako aberastasuna tokiko proiektu burujabeetara bideratzeko norabidea sendotuz. Horrela, eta proba pilotu gisan, 15 denda Goienerretera pasa dira eta Enherkom-ek sortutako energia Ekhiaren bidez ordaindu ahal izan dute. Dena ondo bidean, laster, alde zaharreko zuntzaren baitan arituko diren operadore kooperatiboen (Izarkom) zerbitzua ere Ekhiaren bidez ordaindu ahalko da.


ordainketa-sistemaren garapena

2024an identifikatutako muga teknologikoei erantzuteko, 2025ean ordainketa-sistemarako aplikazio berriaren garapena abiatu da, 250.000 euroko finantziario aurreikuspenarekin.


Trantsizio eko-soziala

Azkenik, Ekhiaren erabilerak trantsizio eko-sozialean duen ekarpena azpimarratzeko da. Tokiko kontsumoa indartzearen ondorioz, estimazioen arabera, 283 tona CO₂-ko aurrezpena kalkulatu da 2025ean, 2024an hasitako ikuspegia datu zehatzekin sendotuz.


tokiko monetaren aurrekontua



erabiltzaileak



ekhiaren erabilera



etxebizitza

Etxebizitzaren arazoa gure garaiko erronka sozio-ekonomiko nagusietako bat bihurtu da, eta Hernani ez da salbuespena. Azken hamarkadan metro karratuaren prezioa %33 igo da, eta alokairua %22,3 azken zazpi urteotan. Aldi berean, 1.871 herritar daude Etxebiden etxebizitza baten zain, eta herrian 700 etxebizitza baino gehiago daude hutsik. Egoera horrek agerian uzten du merkatuak ez duela etxebizitzaren funtzio soziala bermatzen, eta esku-hartze publiko eta komunitario sendoa beharrezkoa dela etxebizitza duina izateko eskubidea errealitate bihurtzeko.

Testuinguru horretan, 2025ean Hernani Burujaberen baitan egindako lanketak helburu argia izan du: etxebizitza-eskubidea herri mailako politika publikoen erdigunean kokatzea eta horretarako beharrezkoak diren tresna instituzionalak eta komunitarioak martxan jartzea.

Lehenik eta behin, Udalak Bizitegi Merkatuan Tentsio Handiko Eremu izendapena lortzeko prozedura osoa abiatu eta amaitu du, eta une honetan izendapen ofiziala jasotzeko zain dago. Izendapen horrek aukera emango du alokairuaren prezioen kontrola, pizgarri fiskalak, maizterren babesa, eta etxebizitza hutsen mobilizaziorako neurri berriak aplikatzeko. Horietako asko egin dira lehendik ere, baina marko berriarekin neurri zuzen eta eraginkorragoak hartuko dira. Bide horretan, Hernani Burujaberen baitako ekimenek, eta bereziki, komunitateari lotutako programek paper estrategikoa izango dute.

Bigarrenik, Udalaren eta Etxegura elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena sinatu da, eta

Udalak 22.000 euroko ekarpena egingo du. Zertarako? Pertsona baten lana liberatu eta hark Hernaniko Etxebizitza Behatokia koordinatu dezan. Behatokia zerbitzu publiko-komunitario gisa ulertzen dugu, udalaren eta eragile sozialen arteko lotura gunea. Bere eginkizun nagusiak dira herritarren kontsultak artatzea, maizter eta jabeentzako aholkularitza eskaintzea, bitartekaritza egitea, eta udal politikak elikatzeko beharrezko informazio eta diagnostikoak sortzea. Bestalde, ahalduz tresna izango da Behatokia: eskubideen gainean informatu eta eskubideen alde borrokatzeko lanabesa. Beraz, ez da soilik arreta-zerbitzu bat, baizik eta datuetan oinarritutako etxebizitza-politika aktibo baten oinarri tekniko eta soziala. 2026ko urtarrilean zabalduko da Behatokia, eta Burujabetzen Etxetik jardungo du.

Hirugarrenik, 2026n martxan jarriko da etxebizitza hutsen arazoari aurre egiteko hutsUNEa izeneko programa publiko-komunitarioa. Horretarako, GFAtik 21.3000 euro lortu dira. Programaren helburua da etxebizitza hutsak modu seguruan eta bermeekin mobilizatzea, jabeentzako konfiantza-marko bat sortuz eta, aldi berean, etxebizitza behar duten pertsonei alokairu eskuragarria erraztea. Programak udal bermeak, aholkularitza teknikoak, bitartekaritza eta laguntza ekonomikoak aurreikusten ditu. Etxebizitza Behatokia izango da jabeekin harreman zuzena lantzeko eta kasuen jarraipena egiteko tresna nagusia. Horrela, hutsUNEa programaren helburua etxebizitzaren funtzio soziala berreskuratzea da, merkatuaren logikatik harago, komunitatearen beharrei erantzuteko.

Laugarrenik, aipagarria da Etxeguraren jarduna. Alde batetik Jabe Solidarioen sarea indartu da aurtun: kontzientzia soziala lantzeaz gain, beren etxebizitza arrazoizko baldintzetan alokatzeko prest diren hernaniarren sarea. Bestetik, otsailean, Sandiusterrin adineko pertsonen bideratutako etxebizitza eredu alternatiboen mahaingurua arrakastatsua burutu zen. Urritik aurrera, Etxegurak, udalarekin hitzarmena sinatzeaz gain, haren ekintza-plan propioa sortu du. Horrekin barne nahiz kanpo jardunari begira landu nahi diren esparruak identifikatu dira, eta urrian, guzti hori aurkeztu da Biteri Kultur Etxean.

Horretaz gain, Behatokia ireki baino lehen Etxegurak lanketa espezifiko egin du. Etxebizitza Behatokiak oinarri komunitarioa izan dezan etxebizitzarekin lotura duten esperientziak jaso ditu. Hiru gizarte-talderekin burutu dira saioak: gazteak, eragile feministak eta eragile antiarrazistak. Orotara, 12 pertsonaren lekukotza kualitatiboa jaso da eta denen artean honako galderari egoki erantzuteko neurriak zehaztu dituzte: “nola balia daiteke Etxebizitza Behatokia kezka guzti hauei erantzun ahal izateko?”.

Azkenik, gobernantza mailan ere aurrerapauso esanguratsuak eman dira. Etxegura indartu egin da egitura gisa, eta Udalak Etxebizitza Ekintza Plana onartu du, etxebizitza-politikaren ibilbide-orria argituz. Horrek baldintza hobeak sortu ditu Hernani Burujabek proposatzen duen gobernu publiko-komunitario eredu gauzatzeko, non politika publikoak ez diren soilik administrazioetik diseinatzen, baizik eta eragile sozialekin eta herritarrekin elkarlanean. Testuinguru horretan, etxebizitza mahaia berraktibatu da eta erronka handiei aurre egiteko elkarrikeria eta koordinazio espazio nagusietako bat izaten jarraitzen du.

Laburbilduz, 2025ean etxebizitzaren arloan egindako lanak ez du neurri isolatuen multzoa osatzen, baizik eta estrategia koherente baten oinarriak: arazoaren aitortza instituzionala, tresna juridiko berrien aktibazioa, egitura publiko-komunitarioen sorrera eta esku-hartze zuzeneko programen prestaketa.

telekomunikazioak

2025ean aurrerapauso nabarmenak eman dira telekomunikazioen burujabetzaren alorrean, eskubide digitalen eta azpiegitura publiko-komunitarioen garapenean oinarrituta. Udala, EHKom kooperatibarekin eta Izarkom bezalako eragileekin lankidetzan, zuntz publiko-komunitarioaren zabalkuntzarekin jarraitu du, herriko eremu eta auzoetan Internet konexio duina eta irisgarria bermatzeko helburuarekin.

Kaxkoaren proiektuaren esparruan, 2025ean bigarren fasera iritsi da zuntza hedatzeko lana, eta auzoan azpiegitura hori bukatzea aurreikusten da; horrek etxebizitza ugariari aukera emango die banda-zabaleko konexioa erabiltzeko. Era berean, Portu, Karabel eta Zikuñagako auzo-elkarteetan zuntz optiko bidezko Internet zerbitzua ezarri du EHKom-ek, “Udal wifi” sistemaren

baitan, eremu horietan konektibitatea hobetuz eta arrakala digitala murrizteko ahaleaginean.

Telekomunikazio burujabetza bizitzarako oinarritzko zerbitzu gisa bermatzea da helburua, eta ez negozio logikaren bidezko azpiegitura arrunt bezala. Horrela, oligopolioek kontrolatutako merkatuaren menpekotasuna apurtu nahi da, sarea publiko-komunitarioa izanik edozein operadorearentzat irekita. Telefono eta datu konexioak duten garrantzia eguneroko bizitzan ikusita, pausu hauek telekomunikazio burujabetzaren eraikuntzan urrats errealak dira eta herritarren eskubideen berme handiago bat sortzen dute.

bioaniztasuna

2025ean bioaniztasunaren ildoak izaera pedagogiko, komunitario eta politikoa uztartu ditu, lurraldearen zaintza trantsizio ekosozialaren erdigunean kokatuz.

Sagarretak **Urumea ibaiaren garbiketa antolatu du**, herritarren parte-hartze zuzena sustatuz eta ibai-ekosistemaren zaintza komunitarioa indartuz. Ekintza sinbolikoa ez ezik, tokiko ingurumen-arduraren aktibazio praktikoa ere izan da.

Bestetik, **Urumeako mendietan aurreikusitako instalazio eoliko**en inguruko eztabaida publikoa sustatu da, energia trantsizioaren eta biodibertsitatearen arteko tentsioak azaleratuz. Helburua horrelako proiektuek

duten **lurralde-inpaktua, paisaia eta ekosistemen babesa kontuan hartzen dituen plangintza demokratikoa aldarrikatzea da.**

Azkenik, trantsizio ekosoziala lantzeko mahai-inguru zikloaren bidez, bioaniztasuna beste sektoreekin lotu da —energia, elikadura, lurralde antolaketa— ikuspegi integrala sendotuz. 2025ean bioaniztasunaren ildoak oraindik eskala txikikoa bada ere, argi geratu da ingurumen-zaintza ez dela sektore isolatua, baizik eta **Hernani Burujaberen estrategia osoa zeharkatzen duen ardatz politiko eta kulturala.**

formazioa

Formazioa Hernani Burujaberen lan-ildo estrategikoetako bat da. Zergatik? Bada, trantsizio ekosozialerako beharrezkoak diren gaitasun politikoak, antolaketa-trebetasunak eta ikusmira partekatuak eraikitzeke tresna delako. 2025ean, 2024an hasitako norabidea sendotu dugu, formazio-ildo egonkorrago eta dibertsifikatuago baten bidez herri-mugimendua, udalgintza eta kooperatibagintza artikulatzeko helburuarekin.

Asmoez gain, praktikoki antolatu da. Izan ere, 2025ean, guztira, 20 formazio-ekintza egin dira, eta gutxienez 348 pertsonak hartu dute parte. Ekintzak formatu askotarikoak izan dira (mintegi estrategikoa, ikastaro trinkoa, zehar-lerroen saioak eta hezkuntza komunitateko jarduerak).

Hurrengo atalean topatuko duzue egindakoaren laburpena.

Formazio markoaren egonkortzea

2025ean formazioaren marko estrategikoa finkatzeko urratsak eman ditugu eta, formazioak Hernani Burujabe prozesuan izan behar duen rola zehaztu da: jakintza praktikoak jorratu eta ikasketak prozesura itzularazteko gaitasuna izan behar du. Finkatutako irizpide nagusiak formazio politikoaren eta teknikoaren arteko oreka, xede-taldeen aniztasuna eta diskurtso partekatuaren garrantzia izan dira. Lan horrek ahalbidetu du 2025ean garatutako gainerako formazio-ekimenak marko koherente batean kokatzea.

Ikastaro trinkoa: herri-mugimendutik burujabetzak eraikitzea

2025ean formazio-ildoaren ardatz nagusia ikastaro trinkoa izan da. “Nola eraiki burujabetzak herri-mugimendutik?” ikastaroan 14 lagunek hartu dute parte. Herri-

mugimenduan, udalgintzan eta sindikalgintzan aritzen diren pertsonak nagusiki. Ikastaroa 7 saiotan (2 ordukoak) garatu da eta parte-hartzaileak Oinarri Taldeetan antolatuta aritu dira eta amaierako lanak Hernani Burujabe indartzera bideratu dituzte.

Landutako edukiak izan dira, besteak beste, lurralde burujabetzaren oinarriak, estrategia eta taktika, herri-antolaketa, udalgintza eraldatzailea eta ekonomia sozial eraldatzailea. Prozesuaren balorazioa oso positiboa izan da, bai edukien sakontasunari dagokionez, bai-eta metodologiari eta talde-dimentsioari dagokionez. Horrenbestez, ikastaroak prozesuan aktiboki parte hartzeko masa kritiko kualifikatua sendotzen lagundu du.

Zehar-lerroen lanketa


2025ean zehar-lerroen lanketak garrantzi berezia izan du Hernani Burujabe prozesuaren koherentzia politiko eta etikoa indartzeko. Urtean zehar arrazakeriaren aurkako ikuspegia, genero-zeharkakotasuna eta ekologismoa landu dira, formatu eta hartzaile ezberdinetara egokituta. Arrazakeriari buruzko bi saio egin dira (liberatuentzako saio itxia eta saio irekia), 35 partaiderekin; genero-zeharkakotasunari buruzko saio batean 30 lagunek hartu dute parte; eta ekologismoari eta desazkundeari buruzko mahai-inguruan 80 pertsona inguruk. Lanketa horien bidez, prozesuan parte hartzen dutenen artean ikusmira komuna eraiki da, eta etorkizunean egitasmoetan txertatu beharreko irizpide politikoak identifikatu dira.

Hezkuntza komunitatearekin lanketa


2025ean hezkuntza komunitatearekin lanketa modu sistematikoagoan lantzen hasi da, izaera esperimental baina estrategikoarekin. Urtean zehar, institutuko eta kanpoko 180 ikasle

ingururekin hainbat saio eta bisita egin dira, eta irakasleekin zein hezkuntza plataformarekin bilerak egin dira harremanak egonkortzeko. DBH4ko ikasleekin egindako saioen ebaluazioak erakutsi du ikasleen %88k uste duela Hernani Burujabek onura ekar dezakeela herriarentzat, eta bereziki etxebizitza, energia eta elikadura izan dira interes handiena piztu duten arloak.

Datu horiek berretsi egiten dute hezkuntza komunitatean eragiteak gazteen artean prozesuarekiko ezagutza, interesa eta legitimazioa handitzeko duen potentziala.



Partaide eta ikasle kopurua



bidea herritar taldea

Planifikazio Prozesuaren antolakuntza

Hernani Burujaben herritarren behar eta nahietatik abiatuko den Planifikazio Prozesua martxan jarri dugu aurten ere. Herritarrek ahaldunduz, hernaniarrek bizitzarako ezinbesteko diren eremuetan proposamenak egin eta erabakiak hartzea da gure helburua. Horrela, 2025 urte honetan ere, Bidea Herritar Taldea arduratu da Planifikazio Prozesuaren lehen fasea antolatu eta dinamizatzeaz. Helburu horrekin gure udalerriko auzoetan zehar 8 auzo batzar antolatu izan dira. Aurten lehen aldiz ere, Elkartek Batzarrak deitu izan ditugunak antolatu ditugu, eta 19 elkartekin bildu gara.

Ikasleekin saioak

Ikasleekin saioak burutu ditugu Hernani Burujabe prozesuaren ezagutza gure herriko txoko guztietara zabaltzeko asmoz. Saioak batez ere Hernaniko Institutuko ikasleekin burutu ditugu baina baita Kataluinatik Hernani Burujabe ezagutzeko asmoz etorritako Ekonomia Sozial eta Solidarioko Graduondoko ikasleekin ere.

Burujabetzen Eguna 2025

Urtero bezala, udazkenean, Burujabetzen Eguna ospatu dugu, aurten urriak 25ean. Hernani Burujaberaren baitan ditugun eragileek kalean beraien jardura eta izatea azaltzeko aukera izan zuten. Aurtengo hontan, Hernaniko eragile diren Amher, Dobera, AEK, Burrunba, Zero Zabor, Stop Kaleratzeak, Harrotzen Gazte Feminista taldea, Guek Geok, Altxa Burua, Jangela Etzi, Hernaniko ELA eta Hernaniko LAB ere parte hartzaile izan ditugu Burujabetzen Egunean. Hernani feminista, antiarrazista, euskaltzale, ekologista eta justizia sozialaren

aldeko aldarri bat izan zen Burujabetzen Eguna. Eskerrik asko denei eta baita parte hartu zuten trikitilari eta bertsolariei ere.

Eolikoen lantaldearen eta Jangela Etzi dinamikaren dinamizazioa eta laguntza

Eolikoen lantaldea osatu genuen eragile ezberdinen artean herrian ezarri nahi diren proiektu eolikoak aztertzeko asmoz. Lantalde horretatik ekimen ezberdinak antolatu dira 2025ean zehar: mahai-ingurua, eolikoen proiektuak ezarri nahi dituzten gunera irteera... Bidea herritar taldean lantalde honen dinamizazioaz arduratu da.

Bestalde, Bidea herritar taldeak ere bertako produktuez hornituko den beste jangela eredu baten alde lanean diharduen Jangela Etzi dinamizatzen lagundu du.

Eredu talka

Hernani Burujabe erakusten ari da lehen negozioaren logikak agintzen zuen hainbat esparru herritarren behar eta interesak erdigunean jarritz ere kudeatu daitezkeela, eta pixkanaka espazioa irabazten ari da. Horren harira, beste eredu bat posible dela erakusteko, Bidea herritar taldeak “eredu talka” kanpaina egin zuen irailean zehar.

Eragileekin harremanak

Bidea herritar taldeak harreman iraunkor eta emankorrak ditu herriko eragile askorekin, saretuak egoteak elkarrengandik ikasi, elikatu eta herri hobeago bat eraikitzen lagunduko digunaren konbikzioz. Harreman horrek fruitu asko ematen ditu, horietako bat Hernaniko Sare Antiarrazistaren sorrera izan da eta Bidea herritar taldea bertako partaide izan da hasieratik.

trantsizio ekosoziala eta tokiko garapena

Bizi dugun garaia aldaketa sakonak eskatzen ditu. Krisi klimatikoa, energia-ziurgabetasuna, zaintza beharren hazkundea eta desberdintasun sozialen areagotzea ez dira fenomeno isolatuak; sistema ekonomiko eta sozial baten mugekin topo egin dugunaren seinale dira. Testuinguru horretan, udalerrri batek ezin du bere etorkizuna kanpoko merkatuen edo erabaki urrunen menpe utzi. Herri batek bizigarri izaten jarraitu nahi badu, bere **oinarri material eta sozialak indartu** behar ditu, eta indartze horrek emaitza zehatzak izan behar ditu: tokiko elikadura, energia eta moneta sistemek soilik **2025ean 466 tona CO₂ baino gehiagoko murrizketa** eragin dute.

Trantsizio ekosoziala ez da soilik ingurumen-politikaren egokitzapena. Eredu ekonomiko eta sozial berri baten aldeko apustu politikoa da, bizitza erdigunean jartzen duena. Horrek esan nahi du produkzioa, kontsumoa eta antolaketa ekonomikoa berrikustea, hazkunde mugagabearen logikatik harago, pertsonen ongizatea eta lurraldearen iraunkortasuna lehenetsiz. Baina esan nahi du, halaber, enplegua sortzea eta lan-baldintzak duintzea: elikadura, energia, zaintza eta monetaren inguruan **36 enplegu arrunt egonkortu dira**, 5 laneratze enplegu eta 4 erregularizazio edo arraigo prozesurekin batera. Trantsizioa, beraz, ez da diskurtso hutsa; lanpostu eta bizi-aukera berriak ere bada.

Tokiko garapen burujabeak ikuspegi horri erantzuten dio. Garapena ez da ulertzen kanpoko inbertsioa erakartzea edo jarduera ekonomikoa handitzea soilik bezala, baizik eta herritarren behar materialak eta sozialak tokian

bertan, modu demokratiko eta iraunkorrean, antolatze gaitasuna bezala. **Elikadurak 620.000 eurotik gorako fakturazioa sortu du, energiak 216.000 eurotik gorakoa, eta tokiko monetaren bidez 2,9 milioi euroko jarduera ekonomikoa** burutu da. Elikadura, energia, zaintza eta tokiko moneta ez dira politika sektorial isolatuak; komunitate baten autonomia eta duintasuna bermatzeko zutabeak dira, eta gaur egun ehunka herritarrek sostengatzen dituzte: **162 bazkide elikadura sarean, 350 bazkide komunitate energetikoan eta 791 bazkide moneta sisteman.**

Udal mailan, trantsizio ekosoziala praktikara eramatea da erronka. Horrek eskatzen du politika publikoak modu integratuan pentsatzea, lankidetzak publiko-komunitarioa indartzea eta tokiko gaitasun ekonomiko eta teknikoak herriaren beharrei lotzea. **Helburua ez da soilik jasangarriagoa izatea, baizik eta justuagoa, demokratikoagoa eta erresilienteagoa den udalerrri bat eraikitzea;** alegia, bere baliabide estrategikoen gaineko kontrol eta antolaketa kolektiboa sendotzea.

Tokiko garapen burujabea, beraz, ez da aukera teoriko bat; behar politiko eta sozial bat da. Etorkizuna ez da kanpotik etorriko. Hemen eta orain eraiki behar dugu, komunitate gisa, bizitza duina eta iraunkorra bermatuko duen eredu. Eta hori jada abian da: **datuek erakusten dute trantsizioa ez dela promesa bat, baizik eta martxan dagoen errealitate bat.**

gobernu ekosistema eta planifikazio prozesua

Planifikazio prozesuari dagokionez, bizitza posible egiten duten sektore estrategikoak herritarren beharrak asebetetzera bideratuko dituen bide-orria zela esaten genuen. Beraz planifikazio prozesuarekin sektore estrategikoak tokiko mailatik antolatu ditugu, berlokalizazioa izanez oinarri, justizia soziala, iraunkortasuna eta parekidetasuna ardatz hartuta eta ahalik eta modu demokratikoenean eta partekatuenen.

Planifikazio prozesuaren dinamizazioa Bidea Burujabetzen Aldeko Herritarren Taldeak burutu du; auzoetako elkarte eta gainontzeko eragileekin harremanak egin eta auzo batzarrak antolatuz eta proiektuaren herritartzea eta proiektuaren lurraldetzea bilatuz.

Auzoetako batzarretan (Ikusi Auzo Biraren emaitzen laburpena); auzoetako behar eta lehentasunak zeintzuk izango diren detektatuz da.

2025ean bada, berrikuntza bat eman da Planifikazio Prozesuan, elkarte eta eragile sozialekin egin diren bilera errondak alegia. Modu honetan Hernani Burujabe eta eragile sozial eta politikoen harteke harremanean pausu bat gehiago eman da.

Auzoetako batzarrak egin ondoren, Burujabetzen Kontseiluaren batzarra deitu zen, eta auzoetan eta eragileekin egindako bileretan jasotako irizpideak sektoreekin partekatu ziren.


Irizpide horiekin, ikuspegi territorial eta sozialak sektore bakoitzaren plan sektorialean txertatu dira eta planteatuta zeuden proiektuak irizpide

horien arabera ber-formulatzeko ahalegina egin da. Horretarako, sektoreetako batzarrak egin dira. Ondoren, jasotako ekarpenak batzar sektorialeko planetara erantsi dira eta, Hernaniko Plangintza Estrategiko integrala osatu da. Horrela urteko azken Burujabetzen Kontseiluan 2026ko ekintza plana eta aurrekontuak proposatu eta onartu dira. Hori kontuan izanda zehaztu dugu sektore eta proiektu bakoitzari esleitu zaion diru eta baliabide kopurua. Azkenik, planifikazio prozesuan zehar adostu diren proiektuak gauzatzeko Hernaniko udalak bere aurrekontuetan txertatu ditu diru kopuru horiek. Onartu beharra dago baina, 2025eko Planifikazio prozesuak ez dituela 2024ko emaitzak hobetu, ez parte hartzaileen kopururari dagokionez, ez eta proposamenen egingarritasun eta bideragarritasunari dagokionez. Hernani Burujabe prozesu bizia den heinean bidean ikasi eta egin beharreko aldaketen inguruan gogoeta egiten ari gara 2026ko planifikazio prozesua ezberdina izan dadin eta emaitza hobeak eman ditzan.


Azkenik, Burujabetzen Batzarrean Hernani Burujabeosatzen duten sektore eta eragile guztietako partaideek hartuko dute parte. Udal ordezkariak eta herriko eragileak gonbidatuak izango dira ere. Bertan aurreko urteko memoria aurkeztu eta hurrengo urterako helburuak eta planifikazio prozesuaren emaitzak aurkeztuko dira.

Herritar eta eragileen partaidetza

Partaidetzarako markoak



Partaidetza (herritar kopurua)



aurrera begira

Hemen jasotakoa, bidearen hasiera besterik ez da izan. Justizia soziala, jasangarritasuna eta berdintasunaren bidean asko baitago egiteke oraindik-ere.

Hurrengo urteotako erronka nagusia Hernani Burujabe zabaltzea izango da, Hernaniar ahalik eta gehien inplikazioa lortu eta sektoreen hedatze eta sakontzearen bidez eguneroko

bizitzak bizigarriago egitea. Horrela, orain arte eskala txikian marraztu ditugun proiektuak lurraldean zehar hedatzea bilatuko dugu: Hernaniar guztiengana iristeko ahalegina egin, Hernanitik eskualdera jauzi egin eta eredu burujabea sakonduz eta hedatuz Trantsizio Ekosozialaren bidean mundu hobea eraikitzeko gure ahaletxoak jartzen jarraituko dugu.

